

Berdintasunean

Hezten



Lehen Hezkuntzako
umeentzako hezkidetz
hiztegitxo

Lehen Hezkuntzarako Gida. Lehen Hezkuntzako umeentzako hezkidetza hiztegitxoa

Egileak:

FETE-UGT

Emakumearen Institutuaren lankidetzarekin

Argitalpen honetako testuetan oinarrituta:

Coeducación: dos sexos en un solo mundo

Graciela Hernández Morales

M^a Jesús Cerviño Saavedra

ITE (Berdintasun Ministerioa)

Emakumearen Institutua (Berdintasun Ministerioa)

Madril, 2009

Irudiak: Mónica Carretero

Itzulpena: Roberto Casas Andrés


Edizioaren Koordinatzailea: Sendra Ros Escanez

Aurkibidea

1. Amona	4
2. Bateragarritasuna	5
3. Ipuinak. Ipuin mamitsuak. Ipuinek kontatzen dutena	7
4. Zaintzea, zeure burua zaintzea, elkar zaintzea	8
5. Neska-mutilen eskubideak	9
6. Bazterkeria	11
7. Desberdintasuna	12
8. Aniztasuna	13
9. Nortasuna	14
10. Hezkuntza	16
11. Berdintasuna	17
12. Jolastea eta jolasak	18
13. Atexe	20
14. Lengoaia	22
15. Parte-hartzea	23
16. Bakea	24
17. Elkartasuna	25
18. Lanak	26

1. Amona

Amonak badaki nola barre egitea triste zaudenean. Lo egitera joaten zarenean kontatzen dizkizuten istorio harrigarriak ezagutzen ditu. Zure bila eskolara joaten deanean astiro ibiltzen da. Badaki entzuten larrialdietan zaudenean. Zure gustukoen platera egiten du bera bisitatzera joaten zarenean. Ondo daki zer den egokiena hotzeri bat harrapatu edo tripako mina duzunean eta inoiz ere ez da ahazten zure urtebetetzeaz. Sekretuak gorde eta inauterietako moztorroak josten ditu. Behar duzun guztietan hurbil daukazu eta zorionsua da bizitzaren “gaizkideak” zaretenean.

 **Jarduera:** Zure amonak zorroan daramana zuk jakin baietz. Marraz dezakezu?




2. Bateragarritasuna

Gauza askoren batura da bizitza eta den-denak funtsezkoak dira zorionsuak izateko. Duela urte asko, emakume gehienek etxearen barruan lan egiten zuten eta familia osoak ondo egoteko behar den guztia edukitzeaz arduratzen ziren. Bitartean, gizonak oso laster joaten ziren lantegian, bulegoan, egunkarian, meatzean... lan egitera.

Emakume horiek ezin zuten bizi lan-munduan gertatzen dena. Gizonak, halaber, etxean gertatzen den bizitzaren parte garrantzitsu hori zer den jakin gabe geratzen ziren. Gaur egun, gizonok nahiz emakumeok lanaren eta etxearen bizitza konpartitzen dugu.

Gainera, zorionsu egiten gaituzten gauza horietarako parte bat uzten dugu: parketik ibiltzea, maite ditugun pertsonekin egotea, liburu bat irakurtzea, antzerkira joatea, komiki bat irakurtzea, bakardadean lasai egotea, eta abar. Horri bateragarritasuna deitzen diogu, hau da, bizitzaren alde guztiak bizitzeko denbora edukitzea. Den-denok bateragarri egin ahal izateko eginbeharrak banatu behar ditugu.



 **Jarduera:** Seguruenez nagusitan zer izango zaren pentsatzen duzunean non eta norekin bizi izango zaren, zertan lan egingo duzun... imajinatzen duzu.

Ipini ezazu zure esku-azpia orri zuri baten gainean. Errotuladore batez marraz ezazu zure atzamarren silueta. Jarraian marraz itzazu eskuan ikusten dituzun marraz; marra bakoitza bizitzaren bide baten antzeko zerbait da. Imajina ezazu nora eramango zaituzten urte batzuen buruan. Marra bakoitzaren gainean hauxe idatzi:

- Non egingo duzun lan.
- Nola igaroko duzun aisialdia.
- Norekin bizi izango zaren.
- Seme-alabak edukiko dituzun ala ez. Zenbat?
- Zer nolako lanak egingo dituzun etxean.
- Zein lekutara bidaiatuko duzun.

Gogoan izan bizitzak ate asko dituela, batzuek eskolara, beste batzuek maite ditugun pertsonengana, beste batzuek jolastera edo ikastera... eramaten gaituzte. Baina denak konpartitu daitezke berdintasunean oinarriturik ”

3. Ipuinak. Ipuin mamitsuak. Ipuinek kontatzen dutena

Koroak printzesak nekatzen omen ditu eta, antza denez, haiek salbatzera etorriko diren zain leihoan egoteaz asperturik daude. Negar egitea gustatuko litzaieke printzeei bideko arantzak iltzatzen zaizkienean edo gauzez beldur daudenean. Sorginak kopetaraino daude jendeak marrubizko marmelada eta garatxoak sortzeko edabe bat nahasteaz. Abenturazaleek bainu eder bat hartu, galtzontziloak aldatu eta suaren aurrean bero jan behar dute. Txanogorritxok otsotik ihes egiteko bide guztiak ikasi ditu, eta otsoa adoregabe dabil indigestio batengatik. Zer ari da gertatzen?

Arazoa ez da ipuinetako protagonistei abentura horiek bizitzea ez gustatzea, baina aukera guzti-guztiak bizi nahi dituzte neska edo mutila izateagatik oztoporik izan gabe! Mendietatik korrika egitea, dragoi baten gainean hegan egitea, izarretara igotzea, maitemintzea, babarrun magikoak landatzea, zazpi antxumeak zaintzea, magia egitea eta altxorak aurkitzea... Eta askoz hobeto neskek eta mutilek istorioa konpartitzen badugu, ziur aski horrela gure nahi guztiak bete ahal izango ditugu!

 **Jarduera:** Alda itzazu ipuinak protagonistek beste istorio batzuk bizi ahal izateko.

Adibidez, Errauskine esnatu zen eta munduko mendirik altuena igotzea erabaki zuen...

- Txanogorritxo... Eta otsoa...
- Hiru txerrikumeak...
- Printze Ausartak neska batekin topo egin eta hauxe erabaki zuen...
- Edurnezuri... eta orduan printzeari esan zion...
- Erpurutxoa bere aitarekin joan zen egurra moztera eta bidean...




4. Zaintzea, zeure burua zaintzea, elkar zaintzea



Jaiotzen garenean era guztietako zaintzak behar ditugu. Elikatzen, bainatzen, paseatzen edota abesten gaituzte. Lo egiten laguntzen digute, gaixorik gaudenean begiratzen gaituzte eta nola maite gaituzten sentitzeko besoetan kulunkatzen gaituzte. Gu hazi ahala, gero eta modu autonomoagoz geure burua zaintzen ikasten dugu. Gure gorputzak, adimenak eta bihotzak behar dutena entzuteaz arduratzen gara. Hortzak garbitzen, janzen, etxerako lanak antolatzen eta jostailuak ordenatzen ikasten ditugu.

Ondo datorkigu geure burua zaintzea. Ondo datorkigu zainduak izatea. Eta ondo datorkigu maite ditugun pertsonak eta bizikideak zaintzea. Haiek behar dutenean pentsatzea, edo zoriontsu egiten dituenean edo, besterik gabe, guretzat garrantzitsuak direla esatea triste daudela ikusten dugunean, hona hemen bizitzaren ikasbiderik inportanteenetariko bat.

 **Jarduera:** *Begiratu arretaz kutxa hau. Zu zaintzen zaituen eta zuretzat kezkatzen den pertsona baten gan pentsa ezazu. Jarraian pentsa ezazu opari batean eta kutxaren barruan marraztu.*



5. Neska-mutilen eskubideak

Badakizu zer diren eskubideak? Pertsona guztiek, emakumeek zein gizonek, altuek nahiz txikiak, herrialde batekoek edo beste batekoek, zein hizkuntzaz hitz egin, zein gaitasun eduki, nola pentsatu edo nola maitatzen duten inportatu gabe, eskubide berberak ditugu, zergatik? Gizakiak garelako eta, horrenbestez, inork ere kendu, desegin edo baztertu ezin dizkigun eskubideak ditugu.


Neska-mutilok gure eratarra moldatutako eskubideak ditugu eta hain garrantzitsuak dira ezen, munduko edozein lekutan errespetatuak izateko, Gobernuak 1989ko azaroan bildu eta eskubide horiek babestu eta bete daitezen beharrezkoa den gutzia egiteko konpromisoa hartu baitzuten oso idazki garrantzitsu bat sinatuz. Eskubide horietako batzuk ezagutu nahi dituzu?

- Eskolan, etxean, auzoan... berdintasunerako eskubidea daukagu neska-mutilok.
- Emakumeek historian, medikuntzan, artean... eduki duten esku-hartzeaz hitz egiten digun kalitatezko hezkuntzarako eskubidea dugu umeok.
- Jolasteko, kirola egiteko edo era librean janzteko eskubidea daukagu, neskak edo mutilak izateagatik inolako inposaketarik izan gabe.
- Bakean eta biolentziarik gabe bizitzeko eskubidea daukagu haurrok.
- Neska-mutilek nagusitan izango garenarekin amets egin dezakegu, neskei edo mutilei egokitutako lanbiderik ez dagoelako.
- Neska-mutilek askatasunean adierazi eta jardun dezakegu, neskentzat edo mutilentzat aproposagoak diren moduak daudela sentitu gabe.
- Neskei eta mutilei hizkuntzan aitortuak izatea gustatzen zaigu.
- Neska-mutilok geure burua eta beste pertsonak zaintzen ikasi nahi dugu, bizitzarako funtsezkoa delako.



- Neskatoek eta mutikoek geure iritziak adierazteko eta entzunak izateko eskubidea daukagu.
- Mundua egunez egun gero eta hobea izateko parte hartzeko eskubidea daukagu umeok.

Gogora ezazu bai neskek bai mutilek eskubide eta betebeharrak ditugula.

 **Jarduera:** *Neska edo mutila izateko lau ezaugarri idatz itzazu, zure gustukoena eta berezia egiten zaituzten lauak.*

Apartekoa naiz ezen...

1.
2.
3.
4.

Orain neskak eta mutilak berdinak egiten gaituzten lau eskubidetan pentsa ezazu.

Esate baterako, neska-mutilok eskolara joateko eskubidea daukagu.


1.
2.
3.
4.

Batu zortzi ideia horiek eta azal ezazu zure hitz propioez zer esan nahi duen aldi berean berdinak eta desberdinak izateak.

6. Bazterkeria

Oso hitz ezatsegina da eta hobe da oso urrun egon dadila. Dena den, ezagutu behar dugu desberdintasunarekin ez nahasteko. Desberdinak izateak ez du esan nahi “desorekatuak” garela. Libreagoak izaten laguntzen gaituen zerbait positiboa da desberdintasuna. Bazterkeria, ostera, bigabekoa da gure eskubideak errespetatzen ez direla esan nahi duelako. Kasurako, neska bati klasean entzuten ez zaionean lasaiagoa delako; bera desberdina da, baina entzunda izateko eskubide berbera dauka. Bazterkeriak oso desatsegina den beste lagun bat dauka, diskriminazioa alegia. Neska edo mutila izateagatik gauza batzuk egin ezin ditugunean diskriminazioa dagoela esaten dugu.

Adibidez, ikastetxean lasai jolasteko patioa erabili ezin dutenean, futbolaria dena betetzen duelako, diskriminatuta sentitzen dira neskak. Edota mutil bat familian bizitzera jolastu ezin denean mutikoen jolasa ez dela esaten delako.

 **Jarduera:** Behatu arretaz bi eszena hauek. Zer ari da gertatzen? Idatz ezazu zer esaten den eszena bakoitzean




7. Diferentzia

Han-hemenka jira biraka dabil hitz hau eta agurtu nahi gaitu. **Diferentzia** hitza da. Askotan berdintasunaren eskutik aurkituko duzue eta horrek esan nahi du bien artean zerikusia dagoela. Neskak eta mutilak berdinak izateak ez du esan nahi orobatekoak garela, diferenteak gara! Oso ondo dakizu nola sentitu, adierazi eta jarduten duzun neska bat edo mutil bat bazaara, ezta? Desberdintasun sexual femeninoa eta maskulinoarekin erlazionatuta dago hori. Badakizu, halaber, beste mutiko eta neskengandik bereizten zaituenak bizitzaren aspektuekin zerikusia duela: jaioterria, dirua, kultura, erlijioak eta beste hainbeste gauza gehiago. Imajina dezakezue zer nolako aspergarria izango litzateke guztiok era berebean jokatuko bagenu?, edo doinu berberaz hitz egingo bagenu?, edo joko bakar batera jolastuko bagina?, edo era berebean pentsatuko bagenu?, edo modu berdin-berdinez maitatuko bagenu?, edo amets berberak edukiko bagenu?

Nahi duzun modura izateko eskubidea daukazu. Neska edo mutila izateagatik ez duzu era zehatz batean jokatu behar. Guzti-guztiok orobat desberdinak gara! Hitz egiterakoan, mugitzerakoan, pentsatzerakoan, jolasterakoan, janzerakoan, lagunekin jokatzeke moduan ere diferenteak gara. Ziur aski hauexek bezalako esaldiak entzun dituzue askotan:

- Mutilek ez dute negarrik egiten.
- Neskak ez dira igotzen zuhaitzetara, “marigizonen” kontua da.
- Mutilak ezin dira etxetxoetara jolastu, neskatoen jolasa delako.
- Neskek ez dakite ordenagailuak erabiltzen.
- Neskak apalagoak eta isilagoak dira.

Esaldi horietatik bat ere ez da egiazkoa. Neska eta mutila izateko amaigabeko moduak daude! Zu bezalako inor ez dago mundu osoan. Diferenteak izateak pertsona errepikaezinak egiten gaitu, eskubide, aukera eta betebeharrak berberak dituztenak.

 **Jarduera:** Oso planeta urrun batean berdin-berdinak ziren izaki arraroak bizi ziren. Den-denak berdeak ziren, lau begi zituzten eta Plof izena zeukaten. Emaiozu jarraipena istorio honi...



8. Aniztasuna

Zure jaioterriak, ile edo azalaren koloreak, altuerak, oinazpi zapalak edukitzeak edo bi hizkuntzaz mintzatzeko ez dute garrantzirik. Ezkertia izan zaitezke edo oso trebea kontuak egiten; oso urruti bizi zaitezke edo alboko eraikinean. Barre egin dezakezu edo soinurik entzun ezin izatea, garrantzitsuena, benetan inportatzen duena, eskubideak dituen neska edo mutil bat zarelara da, ez ezazu ahaztu!

Azkarra edo motela izan zaitezke, gauza asko edo oso gutxi eduki; begi zorrotz-zorrotzak eduki ditzakezu edo ikusmen txarrekoa izan. Otsoek bezala entzun dezakezu gauean edo eskuez egindako lengoia ulertu. Armiarmak bezain trebea izan zaitezke edo ontzak bezain adimentsu eta pentsakorra izan. Diferentea eta berezia izan zaitezke, funtsezkoena, benetako garrantzitsuena, zuk nahi duzuna izatea da, neska-mutil guztiok gure bizitza propioa edukitzeko eskubidea daukagulako. Ez ezazu ahantzi!

Zure bizitzan zehar ehunka pertsona ezberdin aurkituko dituzu. Horietako batzuek maiteminduko zara. Beste batzuk zure adiskideak izango dira. Beste batzuek oso gauza garrantzitsuak irakatsiko dizkizu. Baten batek beren bizitzaren zatitxo bat oparituko dizu. Beste batzuk zure aldetik pasatuko dira eta ez duzu berriro ikusiko. Desberdinak eta benetako inportanteak diren neska eta mutil askorekin topo egingo duzu. Ahalegin zaitez errespetatuak eta maitatuak sentitu daitezen. Euren eskubideak errespetatuak izateko betebeharra daukazu, ez ahaztu!

Zure izena Marta, Laila, Markos, Laydi, Joseba, Liu, Wang, Takashi, Lilaj, Yuri, Gladis, Nambi, Leda, Maritza, Ahmed, Arundhati... izan daiteke. Guzti-guztiok eskubide berberak ditugula da garrantzitsuena, ez ahantzi!

Munduko neska-mutil guztiok ezberdin eta bereziak gara, eta guzti-guztiok eskubide berberak ditugu. Noizbait zalantzan jartzen baduzu, begiak goratu eta niretzat oso garrantzitsua zarelara gogor ezazu ”



9. Hezkuntza

Ikastetxera joatea gerta dakizkigukeen gauzarik garrantzitsuenetako bat da, eskolan barrutik eta kanpotik ondo hazten ikasten dugulako.

Elkar ezagutzen, elkarri entzuten, gure interesak zeintzuk diren ezagutzen, errespetuz eta biolentziarik gabe elkar tratatzen, geure burua eta maite ditugunak zaintzen, etxeko lanak egiten... ikasten dugu neska-mutilok ikastetxean. Mundua hobea izateko eta neska-mutil guztiok eskubide berbera edukitzeko historian zehar emakumeek egin duten guztia irakasten digute.

Gogoan izan ikasteak hau esan nahi duela:

- Barrutik eta kanpotik nola hazten zaren sentitzea.
- Jakingura sustatzea.
- Emakume eta gizonei buruzko istorioak jakitea.
- Nire burua, gorputza eta sentimenduak maneiatzen jakitea.
- Nire arazoak konpontzen jakitea indarkeria erabili gabe.
- Beste neska-mutilekin bizitza konpartitzen ikastea. ””





📌 **Jarduera:** Asmakizuna: buruan daramagu ideia zimurtuen pakete hau. Zer da? (οτιωππουδ).

📌 **Jarduera:** Bete itzazu esaldi hauek...

Neska-mutilen eskola:

- Neska-mutilok laguntzen dugu... ..(e)rako.
- Irakasten digutenez berdintasuna garrantzitsua da... ..(e)lako.
- Inoiz ez diegu neskei esaten... ..(e)rik.
- Mutilok(e)an jolasten gara.
- Bizitzaren gauza inportanteak ikasten ditugu, adibidez...


Eskola leku magikoa da, milaka kontu interesgarri ikas dezakezu han. Ikasten duzunean zure liburuetan edo klasean kontatzen dizkizuten edukietan emakumeak aurkitzen ez badituzu, haien berri eskatu. Ikusiko duzu zein interesgarria den! ”

10. Nortasuna

Jaiotzean neskatook arrosaz janzten gaituzte eta mutikook urdinez. Handitu ahala mutilek nola jardun behar duten edo neskegandik zer itxaroten den esaten digute. Hori ez dago ondo, zuhaitz bati adarrak moztu eta hazten utziko ez bagenio bezalakoa delako. Nahi duzun modukoa izateko eskubidea duzu. Inork ez dizu esan behar nola jokatu behar duzun neska edo mutila izateagatik. Izateko, jolasteko, sentimenduak adierazteko, janzteko edo zorionsua izateko zure forma propioa aurkitu behar duzu. Ez dago neska edo mutila izateko modu orokorrik.

Haurren Eskubideei Buruzko Nazioarteko Hitzarmenak hauxe esaten du: “Inor ezin da izan diskriminatua bere itxura, arraza, jatorri, hizkuntza, iritzi edo sexuarengatik”.

Gogora ezazu zure eskola, auzo edo etxeko neska-mutilak izateko era bereziak ere errespetatzeko eginbeharra daukazula.

 **Jarduera:** Eta zu, nolakoa zara?

- Niri buruz gehien gustatzen zaidana...
- Hau izatea gustatuko litzaidake...
- Nire gustukoen jolasa...
- Honi buruz gehiago jakitea gustatuko litzaidake...
- Oso pozik nago hau gertatzen denean...
- Honek triste jartzen nau...
- Ezaugarri hau hobetzea gustatuko litzaidake...
- Honek haserretzen nau...
- Egunen batean hau egin ahal izango dut...
- Honelako mutilak gustatzen zaizkit...
- Honelako neskek gustatzen zaizkit...


 **Jarduera:** Hau izango banintz...

- Animalia bat izan ahal izango banintz, hau izango nintzateke...
- Haize bat izan ahal izango banintz, hau izango nintzateke...
- Mendi bat izan ahal izango banintz, hau izango nintzateke...
- Joko bat izan ahal izango banintz, hau izango nintzateke...
- Ipuin bat izan ahal izango banintz, hau izango nintzateke...



11. Berdintasuna

Gure lehenengo hitza **berdintasuna** da. Oso gaztea izan arren, oso garantzitsua ere bada. Neska edo mutila izateagatik zerbait egin ezin dugula eta batzuentzat edo beste batzuentzat ez diren gauzak daudela guri esatea ez zaigu gustatzen. Badakizu gizaki gehienak, emakumeak edo gizonak garen kontuan hartu gabe, eskubide eta aukerei dagokienez berdinak garela. Guretzat hain normala den hau ez zen bezain normala orain dela gehiegirik ez jaio ziren pertsona askorentzat: neskak ez ziren joaten eskolara, emakumeek egin ezin zituzten lanbideak zeuden etxeko pertsona eta eginbehar guztiez arduratu behar zuten arren, bankura joateko eta bidaiatzeko ere baimena eskatu behar zuten eta emakumeek oso gutxitan parte hartzen zuten politikan, edo artean aritu edo euren iritzia adierazi. Hori erabateko bidegabekoa zenez, emakumeak borrokatzen eta hezkuntza, lanean, eta abarreak eskubideen berdintasuna eskatzen hasi ziren. Tratu txarrik ez izateko eta beren ondasunez gozatzeko eskubidearen alde ere borrokatu zuten. Urte askotako esfortzuaren ostean, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu zen herrialde askotan. Hala ere, munduko zonalde batzuetan bete gabe dagoen amets bat izaten jarraitzen du. Are gehiago, batzuetan gure inguruan ere berdintasunak zirrikituetatik alde egiten du eta, kontuz ez bazabiltza, zaila da aurkitzea.

 **Jarduera:** Berdintasuna gure bizitzetan nola joan den tinkotuz, galde iezaiozu zure amonari zertan aritzen ziren bere ama eta bere aita. Zure amari eta aitari ere zertan aritzen diren galdetu. Jarraian pentsa ezazu nolakoa izango den zure bizitza nagusitan.



12. Jolastea eta jolasak

Hitz horiek zuei gustatu baietz! Hazten ari garenean amets egitea, jatea edo eskolara joatea bezain garrantzitsua da jolastea. Jolasten garenean irudimena amets bezain betetzen da, gure azaletik milaka sentzaziok korrika egiten dute, eta mundu erreala desagertu egiten da! Jolastean denetarik gerta daiteke. Dragoien artean bizi garela senti dezakegu, edo mendiak eskalatzen ditugula, edo koralez beteriko uretan urperatzen garela, edo arriskurik larriena gainditzen dugula... Eta hori guztia hargatik, taldeka edo banaka esperimintatzeak, korrika egiteak, salto egiteak edo milaka abenturetan aritzeak zoriontsu egiten gaituztelako; dena horregatik.

Jolasten garenean nahi dugun guztia izan bagaitezke, zergatik esaten digute neskenzako jolasak eta mutilentzakoak daudela? Bai zera! Jolasak jolasten garenentzat dira! Eta askatasun osoz eta neskenzakoak edo mutilentzakoak diren ala ez pentsatu gabe jolasak gozatzean datza magia.

Gauza bera gertatzen da jostailuekin, den-denok jolas dezakegu gehien olgatzten gaituenarekin. Ez dago neskenzako jostailurik ezta mutilentzakoak ere. Batzuetan telebistan edo aldizkarietan ahalegintzen dira guk horrela pentsarazten. Zergatik ez dugu erakusten askoz azkarragoak garela eta zoriontsu egiten gaituenarekin jolasten garela?

Gogora ezazu, jolastea..

...arrazoirik gabe tontakeri asko egitea da.


...begiak irekita amets egitea da.



...nire lagunekin esperientziak konpartitzea da.

...imajinatzen ditudan mila abentura bizitzea da.

...helduek batzuetan ahazten duten zerbait da. ””




 **Jarduera:** Orduan, zertan jokatuko dugu? Nahi duzun jokoan eta nahi duzunarekin. Seinalu zertan jolastea duzun gustuko eta zertan ez:

		
Pilota		
Soka-saltoa		
Abenturazko istorioak imajinatzea		
Etxetxoak		
Bideojokoak		
Ezkutaketa		
Kulunkak		
Panpinak		
Eraikitzea		
Asmakizunak		
Gertatzen zaizkizun pasadizoak asmatzea		

13. Ataxe

Hitz hau ezagutu ezetz! Erabat desordenatu egin da! Berriro idatzi behar da hizki guztiak bere lekuan jarriz. Izango zinateke hori egiteko gai! Horixe! ETXEA esan nahi genuen. Zergatik aipatzen dugu etxea berdintasuna zer den azaldu nahi dugunean? Gure bizitzaren zati esanguratsu bat hor pasatzen dugulako.


Eta, noski, abegitsua izateko eta bertan benetan ondo sentitzeko, lan handia egin behar da! Erostea, erraztatzea, arropa garbitzea, plantxatzea, oheak egitea, bonbillak aldatzea, janaria prestatzea, baxera garbitzea...

 **Jarduera:** Gure etxean egiten ditugun gauza guztiak aurkitzeko, arreta jarri orri honetan dauden hitzetan eta zure etxean egiten dituzun lanak baino ez itzazu margotu.

Bainatzea
Atsedean hartzea
Mintzatzea
Eskalatzeta
Urpean igeri egitea



Tradizionalki, emakumeek egiten zituzten etxeko zeregin guztiak, eta hori ez zen oso bidezkoa, etxe berean bizi diren pertsona guztiek ongizateko, garbitasunerako eta zaintzarako lagundu behar dutelako, eta guztiak aipatzen ditugunean neskek eta mutilak, nagusiak eta haurrak, barne sartzen ditugu.

 **Jarduera:** Beharbada ez dakizu egiten janari zail bat edo ez dizute uzten mailua erabiltzen, baina funtsezkoa da ordenatzen, garbitzen edo gailetak esnearekin prestatzen ikas dezazun. Marka itzazu jarduera bakoitzaren alboko laukian zein etxeko lan egiten dituzun ondo eta zeintzuk kili-kolo.

		
Nire ohea egitea		
Mahaia prestatzea		
Nire jostailuak ordenatzea		
Nire arropa bere lekuan ipintzea		
Mandatuak egitera joatea		
Ogitarteko bat egitea		
Botoi bat jostea		
Hautsa garbitzea		
Erraztatzea		
Nire zorroa eta eskolarako gauzak ordenatzea		

Gogoan izan etxean den-denok lagundu behar dugula, neskek eta mutilek bezain ondo egiten ditugu etxeko lanak. Gure gauzak ordenatuta egotea atsegina da eta ondo sentitzen laguntzen digu ””

14. Lengoaia

Bazenekien munduko haur guzti-guztiok izen bat izateko eskubidea daukagula? Izenek nortzuk garen esaten dute, beste pertsonengandik bereizten baikaituzte. Begiak itxi. Zure maistraren izena esaten badizut, zure buruan ikusi baietz! Eta zure klaseko neska baten izena aipatzen badut, besteengandik bereizi baietz! Zurekin maskota bat badaukazu, ziur aski zure etxera heldu bezain laster egin zenuen lehenengoa izen bat jartzea izan zen, ezta? Horrela, zuretzat berezia den animalia bat bilakatu egin zen.

Izan ere, izendatzea oso garrantzitsua da, hitzen bidez mundua ulertu eta bertan bizi diren pertsonak gure pentsamenduetan ikusten ditugulako.

Beste esperimentu bat egingo dugu. Begiak itxi berriro eta suhiltzaile batengan pentsatu, nor ari zara ikusten? Seguruenez tutua eta txano gorri handi bat dituen jaun bat ikusten ari zara. Suhiltzaile emakumea esaten badizut, tutua eta txano gorri handi bat dituen emakume bat ikusi baietz! Ezberdinak dira, ezta? Horregatik, neskak eta mutilak, maistrak eta maisuak, amak eta aitak, izendatu behar ditugu beti, guztiok lengoia eta pentsamenduetan presente egoteko.

 **Jarduera:** Lanbide hauetako bakoitzeko maskulinoa eta femeninoa izendatu:

- Suhiltzaile emakumea
- Ministroa
- Mekanikoa
- Medikua
- Maistra
- Zuzendaria
- Pailazoa


- Suhiltzaile gizona
-
-
-
-
-
-



15. Parte-hartzea

Entzuna izateko eta zure iritzia errespetatua izateko eskubidea daukazu. Ondo dakizu zer esan nahi duzun. Zure mundua eta arazo askoren erantzuna ezagutzen dituzu. Idea jenialak eta irudimen bizia daukazu. Pentsatzen duzuna adierazteko eskubidea daukazu, entzuna izateko, inportatzen zaizkizun arazoetan parte hartzeko eta zure iritzia kontuan hartua izateko eskubidea daukazu. Iraganean emakumeek oztopo asko zeuzkaten egunkariak, Parlamentua edo unibertsitatea bezalako espazio publikoetan adierazi ahal izateko. Imajina dezakezu zer esan nahi duen zuri inork kasurik ez egiteak? Beste forma batzuk aurkitu zituzten komunikatu eta entzunak izateko, baina oso bide luze eta gogorra izan zen.

Guzti-guztiok gauza asko ditugu laguntzeko. Horregatik zure ikaskideak entzuten ikasi behar duzu. Ez onartu beste pertsonen ideiak barrez har ditzaten edo iseka egin diezaieten.


 **Jarduera:** Zure bizitzaren protagonista zara eta urte hauetan gertaera garrantzitsuak gertatu dira. Ipin ezazu soka bat horma batetik aurrera. Har itzazu pintza batzuk eta kokatu soka zure bizitzaren momentu seinalatuak gogoratzen dizkizuten gauzak. Adibidez, haurtxoa zineneko galtzerdi bat, marrazkiak... Klaseko gainerakoei erakutsi.



16. Bakea

Osorik zaila da azaltzea bakea zer den, ikusi, entzun edo dastatu ezin delako, baina senti dezakegu noiz falta zaigun tristura edo min hartzeko beldurra sentitzen duzulako. Bakea korrerik aldantzen da errespetua desagertzen denean. Neska-mutil guztiek bakean bizitzeko eskubidea daukagu, horregatik noizbait sentitzen baduzu min ematen dizutela lagundu ahal dizun nagusi bati esan behar diozu. Halaber, molestatu, iraindu edo min eman gabe erlazioatzen ikasi behar duzu. Egiten dugunak garrantzirik ez duela pentsatzen dugu batzuetan, adibidez, ikaskide neskei iseka egin, gona igo edo haiekin hitz egiteari uzten diogunean; horrek guztiak min ematen du. Mutil lasaiak ez onartzea ere mingarria da.

Bakea guregandik alde egitea nahi ez badugu nola erlazioatzen garen zaindu behar dugu, gure inguruko pertsonen sentitu eta behar dutenari arreta jarritz.

 **Jarduera:** Azal itzazu nola tratatua izan gustatzen zaizun eta zerk ematen dizun min. Idatzeazu murraren alde bakoitzean eta klaseko besteekin kontatu.




-
-
-
-




-
-
-
-

17. Elkartasuna

Garai batean emakumeek ezin zuten bozkatu ezta herrialde bateko presidentegisa hautatuak izan; ikasi ere ezin zuten egin. Hori ikusita elkartu ziren mundua aldatzeko eta elkartasun hitza asmatu zuten. Hau bai hitz ederra! Ezta? Herrialde askotan neskek ezin dira eskolara joan beren neba-ahizpak zaintzeko etxean geratu behar dutelako. Beste lekuetan oso tristea ere da neska-mutilek oso txikitatik lan egin behar izatea, sendatuak izateko ospitale-rik ez edukitzea eta azkenik nola jolastu ahaztea. Sinetsi ala ez, munduko neska-mutilei lagundu ahal diegu modu askotan, egin behar duzun gauza bakarra zure eskubideek planetako bazter guztietara heldu behar dutela pentsatu eta gogoratzea da.

 **Jarduera:** Ez itxaron gehiagorik! Munduan gauza asko konpondu behar dira! Amantala jantzi, mustuka eta espartzua hartu eta, lanera!

- Neska-mutilak ureztatu hauxe lortzeko...
- Eskolak landatu neskek hau lortzeko...
- Bidegabekeriak ezabatu honetarako...
- Neskei zuzendutako irainak erraztatu honetarako...
- Etorkizuna josi neska-mutilek hau lortzeko...


 **Jarduera:** Elkartasun kate bat egin ezazu. Bi pertsonari ekintza on bat egin, adibidez zure amari gosaria prestatzea edo zure ikaskide bati opari sekretu bat egitea. Bi pertsona horiek beste bi pertsonari ekintza bana egingo diete eta horrela, zenbat pertsonarengana helduko zara? Elkartasun kate bat edukiko dugu!



Eta zu, nolakoa zara?
Solidarioa?
Bakartia? ”

18. Lanbideak

Zertan lan egingo duzun kezkatzen zaitu ametsetan ere? Orduan lanbide hitza garrantzitsua da zuretzat. Ogibide guztiak ezagutzen dituzu? Zure gustukoena zein den argi daukazu? Jakin behar duzun lehenengoa neskentzat edo mutilentzat aproposagoak diren lanbiderik ez dagoela da. Nahi dugun guztia egin dezakegu baldin eta horretarako prestatu eta hori neskek edo mutilek ez dutela egiten entzuten dugunean jaramonik egiten ez badugu. Duela zenbait urte oso neska gutxik pilotatzen zituzten hegazkinak eta mutilak ez ziren Haur Hezkuntzako maisuak, baina orain badakigu neskek nahiz mutilek berbera egin dezakegula.

 **Jarduera:** Begiratu zure inguruari eta zein lan ezagutzen dituzun eta nork egiten dituen apuntatu.

- Eskolako autobusa gidatzea
- Klasea ematea
- Ogia saltzea
- Trafikoa zuzentzea
- Heziketa fisikoa irakastea
- Herrialdea zuzentzea
- Haurtxoak zaintzea
- Suteak itzaltzea
- Autoak konpontzea
- Eraikinak egitea
- Ilargira bidaiatzea
- Liburuak idaztea

Orain pentsa ezazu, badaude emakumeentzat edo gizonentzat lan espezifikorik? Zure erantzuna arrazoitu.



Berdintasunean Hezten

Emakumearen Institutua eta Berdintasun Ministerioaren laguntzaz FETE-UGTk egindako programa

Zergatik egin kanpaina bat berdintasunean hezteko?

Dudarik gabe, berdintasunean erlazionatzen ikasteko leku pribilegiatutako bat ikastetxeak dira. Elkar hobeto ezagutu, besteen aitortpenean oinarritutako harremanak eduki edo konplizitatetik komunikatu eta emakume edo gizon gisa ditugun eskubideak ezagutzera eramaten gaituzten esperientzia berriak konpartitzen ditugu ordu batzuek egunero. Giden, tailerren eta web orriaren bitartez (www.educandoenigualdad.com), bizitza berdintasunean konpartitzeak zer esan nahi duen hausnartu eta ikertzen lagundu nahi dizuegu kanpaina honetan.

Non gehi ditzaket gidaren edukiak?

www.educandoenigualdad.com web orrian gai bakoitzari buruzko bibliografia komentatua aurkituko duzu. Gainera beste atal interesgarri asko ere aurkituko dituzu: gelan berdintasuna lantzeko gida didaktikoak, bideoak, hezkidetzazko-hiztegiak, hizkuntza ez sexistaren gida bat eta *on-line* baliabideak.

Zertan datza 'Berdintasunean Hezten' kanpaina?

Hizkuntza ofizial guztiez egindako bost gida argitaratu ditugu kanpainarako. Gida hauek dohain banatuko dira. Horretaz gain, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako prestakuntza-tailerrak ere egingo ditugu ikastetxeetan. Irakasleentzat hezkidetzako ikastaroak egingo ditugu. www.educandoenigualdad.com web orriaren bitartez jarrai dezakezue kanpaina.

Eta zalantzak argitu edo informazioa eskatu behar badut?

Berdintasuna eta hezkidetzari buruzko aholkularitza bat duzue zuen eskura www.educandoenigualdad.com web orrian zuen galdera eta eskakizun guztiei erantzuteko. Kanpainaren baliabideei buruzko galderak helbide elektronikohoni bidal diezazkieke: info@educandoenigualdad.com

